

# Goibek kale

Elgetako aldizkaria abendua 52zk.

FERMIN IRIBAR  
SAN ROKE 36-1

**Goibeko**  
Mendi mendia elkarteak 295 bazkide  
Troxorta elkarteak 89 bazkide  
Oskorta elkarteak 308 bazkide  
eta Goibeko Kultura Elkarteak

**Egin zaittezk bazkide**

GOIBEKOKO bazkideak elkarrekin abentzen jarraituko dute eta in-  
teresa duten beste abentzarako lagunduko dituzte.

Goibeko Kulturaren erakundearen baitan, abentzarako erakunde  
bakoitzak bere abentzarako lagunduko ditu.



Guile batzuetan emon dotzagu, eta zuek?  
Bazkide izateko gerturatu kolatan jarriko ditugun  
mehatuaketa

**Goibek kale**



**Mendi USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**  
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)  
Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061

## milurteko on!

*Maderas Gallastegi, s. a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

**Antena kontuak**

Antenak Herritik Urrun taldeak Elgeta herriari azaltzea nahi du:

Sinaketa batzearen ondoren 400dik gora jaso zirela eta baita ere herriko hainbat elkarten babesa ere jaso dugula.

Udaletxeko hainbat ordezkarekin elkartu eta bilerak egin ondoren, telefoniko enpresari erantzun bat eman behar zitzaionez, Udalak informe teknikoan zain dagoenaren aitzakiarekin baimena atzeratu egin duela eta gure sinadura bilketaren emaitzen berri eman diela.

Momentu honetan antenaren ezarketa geldidago Euskaltel enpresak ez duelako baimenik.

Taldeak bestalde lanean jarraitzen du, plazako panelean informazioa jartzen eta Udaletxearekin harremanetan eta bileratan, erantzun garbi baten zain.

Antenak Herritik Urrun Taldea  
Mari Karmen Larrañaga

**Kontuz bikoizketekiñ**

Herrixan ez dira ekintzak falta. Herriko jende gaztiak, nagusixak... badaki nun eta zelan pasau denporia.

Hillian zihar, elkartioak Gaztetxiak, Ozkarbixak, Udaletxiak eta tabernari batzuk ekintzak antolatzen ditue. Tamalez, ekintzak egun eta ordu desberdinetan biharian, tregua bariko burrukia sortzen, momentu bardinian egitteko ohituria hartu dabe tabernari batzuk. Gauzak, bakoitzak nahi dittuan moduan egittiak, arazo ugari ekartzen dabiz danoi. Ia, zerbait egitteko orduan etxeki-diekien berba egiñ eta gauzak hobeto antolatzen dittugun.

Elgetako Gaztetxia

**Mendi museoari buruz zenbait azalpen**

Goibekokaleko azkenengo alean 5.mailako ikasleek idatzituzen eskutitza irakurri ondoren, guztion lasaitasunerako beharrezkoa iruditu zait ondorengo puntu hauek argitzea:

1) Argi eta garbi utzi nahi dut, Elgetako Udalak oraindik ez duela inolako erabakirik hartu mendi museoari buruz eta are gutxiago museoaren kokapenari buruz. Hau horrela izanik, nahasterik berriro sor ez dadin eskertzea izango litzateke hurrengo batean gai hau zuhertasun handiagoz tratatuko bazenu-te.

2) Nahiz eta kalean, mendi museo Herri Eskolako azkenengo solairuan eraiki behar den surrumuru faltsua zabaldu, egia da ere gai hau Irakaskuntzako Zinegotziak kontseilu eskolarrean eta gurasoen batzar orokorrean aspaldi argituta utzi zuen gai bat dela. Beraz ulertezina da, argitutzat emandako gai honi, 5.mailako ikasleek berriro ere korapiloak egiten hasi izana.

3) Mendi museo sortzen bada, neroni ere ez zait iruditzen Herri Eskolako azken solairua horretarako tokirik egokiena denik.

Udaleko turismo-teknikaria

**Eolikoak direla eta**

Energia mota hau "altematiba" bezala saltzen digute, baina gaur egun duen trataera eta dauden proiektuak ez dira batere alternatiboak, biazik eta beste industrializazio bat gehiago; baina oraingoan gure mendien industrializazioa, multinazionalen okupazioa. Multinazional hauek euren botere ekonomiko-

politikoa erabiliz oraingoan okupazio honekin hasi dira. Esan dudana esaldi honen azalpena oso erraza da: badi-rudi, jartzen dituzten errota horiek momentuz adornurako jarriko direla, hau da mar-txan jarri gabe, euren patrimonio adierazle.

Beste aldetik, hain polita dirudien eta modan dagoen hitza "altematiboa" gezur batean gelditzen da, zeren ez daukate zentral termikoak kentzeko asmorik, hor dugu Garoñako zentrala adibide moduan edo eta "Castejon"eko kasua. Errota hauetatik aprobetxatuko den energia kontsumitzen dugunaren %3a izango da, asko? Edo gutxi? . Norbaitek pentsa dezake baserritarrak irabazle irtetzen direla. Nire uste apurrean multinazionalak erabiltzen dituzten monigote soilak dira eta hauei bai ez zaiela altematibarik gelditzen edo alokatzen dituzte euren lurrak edo kentzen dizkiete.

Nik benetan ez dakit zer pentsatu "altematiba" honetaz, baina argi daukadana zera da: azkarregi goazela gizarte honetan batzuen interesen arabera, benetako behaketarik egin gabe eta botere ekonomikoaren aurrean kukilduz gure ingurugiroaren kaltetan.

Rebeka Ubera

**Hies jardunaldiak**

Azaroak 15-20 bitartean hiesaren sensibilizazio astea antolatu zen Elgetan. Antolaketa lanetan Gaztetxea eta Deba Garaiko Hies ekimenarekin batera Udala ibili zen arren, azken honen aipamenik ez zen egin kalean ipinitako karteletan, ez eta Goibekokale Aldizkarian. Hori dela eta, Udaleko Osasuna eta Gizarte Zerbitzurako batzordeak gure desadostasuna eta mina adierazi nahi dugu

taldeen arteko lana izan denez, herriko jendea ondo informatuta egon dadin, kon-lunikabideetan antolatzaile guztien izenak agertzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Elkarlana guztientzat aberasgarria da, baina elkarlan horren emaitzak zentzu guztietan adierazi behar dira.

Udaletxeko Osasuna eta  
Gizarte Zerbitzurako  
batzordea



## Bi Aukera ?

**G**kastola edo Eskola, bi termino berdin ala ezberdin? Sarri erabiltzen ditugu bi hitz hauek jakin gabe benetan noiz zein erabili behar dugun.

Honekin, ikastolak historian zehar eduki duen garrantzia ez dut zapuztu nahi, baina gaur egun beste aukera bat ere badagoela ikusten dut: EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA, guztiona, herriarena, euskalduna, kalitatezkoa, anitza,...

Onartuko dut baita, nik Kilometroan, Araba euskaraz,... eta horrelakoetan giroa aparta delako oso ondo pasa dudala, baina gaur egun Euskara lelotzat erabiltzeak... nire ustez ez dauka hainbesteko zentzurik, beste garai batean bai, baina gaur egun...

Bizitza aldatzen doan moduan, hezkuntzako zenbait arlo ere aldatu egin dira eta beldurrez ezin gara atzera begira egon, hau da, gaur egun, Ikastola, "English collage" edo monjak... bezala kontsideratu beharko genuke. Ezin dugu ahaztu euren aukera izan zutela herriaren eskola izateko eta ez dut aitzakitatzat entzun nahi proiektu kurrikularra, metodologia, edo kalitatea orokorrean eskasa edo desagokia zelako ez zutela aukera hori hartu.

Ze, ikastetxe pribatuak, ikastolak barne, aurrera irtetzeko borrokatzen diharduten moduan, nik eta nire lankide ugarik egunero borrokatzen dugu haurrak aurrera ateratzeko.

Prefosta, danok dakigun moduan: sagar ustelak toki guztietan.

Sonia Idigoras



## Irakurriz ikasten da oinez

**E**z dut esango irakasgai nagusienak liburuetatik jaso ditudanik. Horiek bizitzaren eta nire gertukoenen eskuetik iritsi zaizkit. Baina liburuetatik

ere asko ikasi dut.

Bertsotarako, esaterako, langai nagusi liburuak ditut, elikagai baitzaizkit. Benedettiren nobela bakarrean jaso dezakedan guztia nekez jasoko dut beste edozein bidetatik. Horregatik, entrenamendu serioenetan boligrafoa, koaderno eta sei-zazpi liburu izaten ditut eskuartean.



Eskolako lanetarako ere ez dago bibliografia zabala baino hoberik. Hau, hura eta bestea irakurri, eta orduan bakarrik jaioko da duintasunez eginiko lan bat. Irakaslearen hitzekin edo artikulu bakarrarekin geldituta, begirik gabeko, belarri bakarreko eta bi ahoko haurra erdituko duzu.

Baina batez ere, bizitzarako zaizkit beharrezkoak liburuak. Ikuspuntu aniztasuna, oreka eta ezagutza ematen didate. Askotan izan ditut zazpi-zortzi liburu mesila gainean, eta sarri sartzen ditut poltsan hiru-edo, une libreetan irakurtzeko. Eskura izaten ditut hizkuntzalaritzako artikulu bat, ipuin liburu bat edo eleberrri historiko bat, gogoaren arabera hautatzeko.

Irakurketa bat amaitzen dudanero, jantziago nagoela ohartzen naiz, oraindik erdi bilutsik banabil ere. Zerbait gehiago ikasi dut, bakardadeaz, haurren inozentziak, japoniarren ohiturez, Euskal Herriaren iraganaz, euskalkiez, diglosiaz, Karibeko hondar-tzez, emakumeon umore aldaketek... Eta irakurketa bat amaitzen dudanero, beste liburu bat hasteko gogoaz pizten zait, beste esperientzia eta beste mundu batzuk ezagutzeko gogoaz. Honela ikasten dudalako neurea maitatzen eta neurea aberasten.

Bat, liburuak dituen tokikoa omen da. Egia izango da. Nik behintzat maletan nezeserra baino lehenago sartzen ditut liburuak, baita atera ere. Askok maite ditut, eta nahiz eta gehienetan liburutegiko apalera itzuli behar izaten ditudan, liburu bakoitzak utzitako irakasgaia oroimenean geratzen zait.

Ainhoa Agirreazaldegia



Eusko Jaurleritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

### GOJBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Goibeko Kultur Elkarte. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erorstarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943.78.90.85). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Oñati). **Copyright-a:** Goibeko K.E. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. ISSN: 1135-3538. **E-Posta:** goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Lazkao Txiki Bat-Bateko sorgiña zela frogatu zuen Xabier Amurizak

Hilaren 17an, herriko liburutegian, Kultura batzodeak antolatuta, Xabier Amurizak Lazkao Txikiri buruzko bertso emanaldia egin zuen. Bertan Lazkao Txikiren pasadizo eta bertso bixienekin egindako antologia aurkeztu zuen bi ordu luzez.

- Ez dauden bertsolariak (Lazkao Txiki, Xalbador) taularatu dituzu. Zer dela eta?

Bai bata eta bai bestea bat-batekotasunaren genioak direlako. Bat-batekotasunean gertatzen da, bertso gehienak haizeak eramateko dirala, saio luzeak etab. orduan, hori baso haundi bat da eta hortik basotik harri bixiak atera egin behar dira, harri bitxi hauekin bertsolariaren perfila eta kalitatea erakusteko. Horrelako antologia batekin ezagutzen da bertsolariaren obra.

- Hiru Trukuk mendebaldeko baladak; Tapiak, Leturiak eta zuk Koplak zaharrak. Zer geratzen da herri literaturan jorrazteko eta plazaratzeko bizkaieraz?

Guk badaukagu materiala bigarren disko baterako ere. Orain bat egin dugu eta bigarrena datorren urterako edo izango da. Oskorrirekin ere plana eginda daukagu, Koplak zaharrekin egin dugun moduan, bizkaiko bertso zaharrekin eta anonimoeekin antologia bat egiteko. Hala ere, oraindik gauza asko geratzen da herri tradizioan jorrazteko.

- Tapiakin eta Leturiakin atera duzun diskoan zer eskaintzen duzue?

Bizkaiko koplak zaharrak, erromeriarako koplak batez ere. Sartu ditugu Eguen zuriko koplak bi, eta beste gehienak erromeriko koplak zaharrak dira, dantzarako eginda-koak.

- Joxe Migel Lazkaon jaio eta ez zen inon hazi. Amaitu non?

Joxe Migel ez da sekula amaituko. Ni bizi naizen artean eta euskaldunak bizi diran bitartean genioak ez dira sekula amaituko.

- Gaur Lazkao Txiki ekarri duzu Elgetara, Xalba-



Amurizak bertso ikastaroa ere emana du Elgetan. Oraingoan Lazkao Txikiren onenak kantatu zizkigun.

dor ere egon zen Egileorrek, euskalduna zela esaten, akordatzen zara bertsoarekin?

agurtzerakoan, frantsesa bazijoala esan zuenean, Xalbadorrek honela erantzun zion:

Hori izan zan Egileorrek

*Nik ere agur eta esker on bildu zeraten orori,  
Bai eta ere ohar tippí bat frantsesaren kontu horri.  
Gutaz trompatu dela behar dut argitu Egileorri  
hemendik ez da frantsesik joanen handik ez balta etorri.*

GRUPO  
**IFA**  
Produkturik onenak,  
prezio onenean  
Tel: 76 80 98.  
**ALDI**

Andoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18  
Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA

# GOIBEKO elkarteak GOIENAKo partaide

Prentsa arloa, bailarako Telebista eta beste lantzeko GOIBEKO elkarteak sortu da Elgetan

Antzuola, Bergara, Elgeta, Oñati, Arrasate, Are-txabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaioko elkarteek, oniritzia eman diote Goiena Komunikazio Zerbitzuak koop.e-ri. Euskarazko informazioa datorren egoera berrira egokitzeko proiektua da.

Satelitez, kablez eta sare informatikoz baterik dator etorkizuna. Komunikazio esparruak zabal-tzen dihardu eta esparru horretan jarduten dutenen kopurua gehitzen.

Mundu zabaleko informazioarekin batera, herri eta auzoetakoa izango da gehien garatuko den arloa herrien identitatea eusteko.

Gure eskualdean, Debagoienean, ugari dira hizkuntz normalkuntzaren alde diharduten aldizkari, telebista eta irratiak. Hauek egindako bideari jarraipena ematera dator GOIENA egitasmoa. Debagoieneko herri eta hedabideak bildu nahi ditu, elkartuta, komunikazio ar-



**Firmatu dugun elkarteak:** Idolaztik Marijo Deogracias; Aratxabaletako Loramenditik Josu Sarasua; Arrasatetik Joxe Mari Muxika eta Jose Arantzabal; Bergarako Jardunetik Estepan Plazaola, Eneko Azkarate eta Jose Angel Mikeo; Elgetatik Susana Jimenez eta Iban Arantzabal; Eskoriatzako Axtrokitik Andoni Bengoa eta Jabier Errasti; Laixanetik Maider Mugurza, Leire Egaña eta Alazne Intza; Goienako bateratzaile Mikel Irizar.

lo guztiak aurrera eramateko.

GOIENAKoElkarteok lanean dihardugu, herriz herri, egitasmoaren xehetasunak eta egutegiak finkatzeko. Kooperatiba urte berriarekin batera etorriko litzateke, urtean zehar lehen hedabideak herri guztietara iristeko.

**Goibeko Kultur Elkarteak** Elgetan Goibeko Kultur Elkarteak sortu dugu. Elkartea hau izango da Goibekokale aldizkariaren argitaratzailea. Hasiera batean, Goibeko elkartearen lan nagusiak, Goibekokaleri jarraipena eman eta sortu daitezkeen hedabideei Elgetarron laguntza ematea izango dira.

Etorkizunean datozen erronka berriei aurre egiteko, Goibeko Kultur Elkarteak bazkidetza kanpaina jarri du martxan. GOIENA Goibekokalaren jarraipena izango da, euskaraz, eskualdeko informazioa jorratuko duen proiektua.

Partaide izateko Gabonetako oporretan informazio mahaia egongo da plaza barrenean

*Elena Elkororen partez  
Zorionak eta ondo pasau  
gabonak*

## Gabon bezperan danok kantura

Hilaren 23an, iluntzean, Olentzero etorriko da Elgetako haurren eskutitzak jasotzera. 24an eguerdian Guraso Elkartekoak antolatuta herriko umeak kantuan egingo dute. Iluntzeko 19:00etan berriz ere kantuan egingo da eta herriko talde guztiak gonbidatuta daude ekintza honetan parte hartzera. Iluntzean kantuan egiteko entsaio bakarra hilaren 18an izan zen liburutegian. Aipatu, kantu saio honetan Guraso Elkartekoek egindako Olentzeroa aterako dela.



*Goibekokale banatzen dutenei sorpresatxo bat ekarriko ei die Olentzerok.*

### Euskal Presoak Euskal Herrira lemapean kontzentrazioa

Abenduak 31n, Euskal Presoak Euskal Herriratzearen alde kontzentrazioa izango da plazan, iluntzeko 20:00etan. Kontzentrazioara batzeko deia Udaletxeak, Gaztetxeak, EAJ eta EHk egin dute.

### Ontziak biltzeko edukiontzia jarri dira

Mankomunitateak hori koloreko bi edukiontzi jarriko ditu Elgetan. Edukiontzi hauek plastikoak ontzi metalikoak eta brik ontziak biltzeko dira. Beira, paper-kartoi, pila eta ontzi edukiontzietan jasotakoak Legazpiko Banaketa eta Sailkapen plantara eramango dira, bertan berziklatzeko.

Edukiontzi berriak erabiltzeko zenbait gomendio: eramandako ontziak ez dira poltsa itxietan bota behar, sailkapena errazteko. Brick-ak tolestu egin behar dira, gutxiago okupatzeko. Ontziak hutsik eta botilak tapoi gabe bota behar dira.

## Gabonetako denbora librea

Urtarrilak 3, 4 eta 5erako denbora librea antolatu du Udaletxeak. Urtarrilak 3an, Udaletxeako Kirol zerbitzuek antolatuta Herri kirolak izango dira polikiroldegian.

4an eta 5ean gaztettoak Gaztettoko monitoreekin jardungo dute. Bi talde egingo dira txiki eta gaztettoak banan-

duz. 4an jolas parkea izango da eta 5ean ekologia landuko dute. Udaletxeako Ongizate zerbitzuek Gaztettoaren laguntzarekin antolatu dituzte bi egun hauek. Denbora librearen kostua eguneko 100pta. izango da eta ordutegia arratsaldeko 15:30etatik 17:30etara. Ondo pasatzeko aukera bada goberaz.



*Jolasak ere egongo dira gaztettoentzat*

Leku paregabea.  
eguneko menua  
Tel: 943 76 82 83

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA  
Eguneko menua 850 pzta.  
Karta.

Dantzariak zirala edo dantzan ziharduela esan ezker nahikua zan. Antzerako zeozer erantzun dau Leire Urgoitiak be. hori erantzunoi emon eta kartia bialdu doskulako eruango ditte bi kamiseta. Olentzero eguna baiño lehenau etorri jako ba erregalua.

Lehiaketiak aurrera jarraitzen dau hala eta be. Zure aukeria oingua izan leike, izan be ez da zailla, ezta? Zer da hau?

Batzuk hasi zarie kartak internetetik be bialtzen. Zuentzako komo-duaua bada, ba edarto!!!!!! Gure e-postaren helbidia ez dakizuenok apuntau: goibeko@topagunea.com da. Bestela be badakazue gurekin hartu-emonian ifintzia. Zuen kartan Goibekokale Aldizkarixa ifiñi, Salvador kaleko 2.enian garela esan, Kultur Etxian eta gero buzaira botatzia besteik ez dakazue. Ia zortedunak zarien.



# Munduan daren arazuak gertutik jarraitzen dozuz? Zer egin geinke laguntzeko?




Maria Luisa Garvesta  
Bihargiña (44 urte)

Gertutik ez dakit segitzen doten, uste dot pixkat arin xamar. Ikusi-eta egitten dogu baiña askotan ardura gehixegi jarri barik. Uste dot hainbeste ikusitta emoten dau pasa egitten dogula horrek arazuotatik. Gertuko gauzei garrantzia askoz haundixaua emoten dotsagu.

Eguneroko egunkarixai beti emoten dotsat pasada bat baiña, inportantzia emon arren ondio gutxi emoten dotsat. Laguntzetan oso motz geratzen gara, asko falta da egitteko. Gaiñera uste dot, gertuko arazuena asko arduratzen gala eta bestiena ahaztu.

Juan Mari Alberdi  
Bihargiña (49 urte)



Jdoia Elkoro  
Bihargiña (30 urte)

Gertutik segitzen dot ze, egunero egunkarixan eta telebistan agertzen da. Baiña askotan oso imagen gogorak agertzen dira, kataia aldatzeko modukuak. Laguntza kontutan oso atzian gare, bai geu eta bai estatua.



Jmanol Zabala  
Bihargiña (57 urte)

Egunkarixa eta telebistan bittartez egunero segitzen dittut horrek arazuok. Oindio asko lagundu biharra dakauela uste dot. Guk uste dogu hemen bakkarik dakaguzela arazuak, baiña kanpuan hemen baiño arazo larrixaguak dare.

Ahaztuta ez dakaraz horrek arazuok, egunero irakurtzen dot egunkarixan. Uste dot gutxi laguntzen dogula eta ondio asko dakagula egitteko.

Jose Arantzabal  
Bihargiña (47 urte)



Uste dot horren gaixorren gaiñian ikusi eta entzutzia ondo dagoa, baiña asko dago aurreratzeko. Beste gauza asko moduan aurreruntz egin biharra dakau, ez atzeruntz. Garen moduan, gehixau aurreratu biharko giñuke.

Miren Zengotitabengoa  
Jubilana (67 urte)



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

**Paxi Taberna**

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297



**ARIES:** Marte hire zeñuan sartu dok/don eta ligatzeko aukerak gutxi egiñ jatazak/jatanaz. Lasai eta animo!!

**TAURUS:** Hire lan barrixan sekula baiño gustorau hago. Lana gogorra dok/don, baiña lanian gustora egotia be ez dok/don gutxi.

**GEMINI:** Azkenian galdu dittuk/dittun kiluok, baiña arrelauta hago oiñ jatozaken/jatozanan egunekin.

**CANCER:** Hainbeste kejakin etxequak be ingurutik alde egingo juek/jone. Zaindu ingurua eta konformau dakanakin/dakananakin.

**LEO:** Ingurukuek ulertzen ez haben ustia dakak/dakan, baiña ez larrittu, denboriak gauzak argixau ikusiko dittuk/dittun.

**VIRGO:** Hiriak hiretako eta bestienak be hiretako? Hi... nahikua dok/don, noixian behin be soltau zeozer.

**LIBRA:** Laga haben horrek ez jakik/jakin zenbat balio duan/donan. Jantzi hadi dotore eta urten hadi mundua jatera.

**SCORPIUS:** Saturno hire planetan sartu dok/don eta ointxe dok/don sasoa indarbarritzeko, badakik/badakin San Silvestre egunian mendira.

**SAGITTARIUS:** Dirua aurreratzen ei habill! Hola bai olentzeruak bihar dan modukuak!! Pozik edukiko dittuk/dittun hire ingurukuak.

**CAPRICORNIUS:** Nora hoia holako itxuriakin? Fan hadi etxera eta orraztu hadi. Horrekiñ ule jiriorrekiñ...

**AQUARIUS:** Bajaxiau/bajakiñau gabonak ez dirala hire gustokuak, baiña bueno, jan eta edan batzuk egiñ eta egindda jaok/jaon.

**PISCIS:** Hi berriz Aquarius baiño zalaiua haiz gabon kontuekin. Familixa giruan eta danok pozik egoteko egunak dituk/dittun. Eutsi horri!

## Juan Ramon Irazabal Bihargiña (42 urte)

- Zenbat urte Udaletxian? 18 urte.  
- Udaletxeko zein beste lan hartuko ziñuke? Bapez, ez jataz interesantiak pentsatzen.

- Etxeko papelak zeñek eruaten dittu? Erdibana, andria eta nere artian.

- Zelan ikusten dozu zure burua 2000. urtian? Urtebete zaharrau.

- Zelan gustauko jatzun urtia has-tia? Betiko moduan, baserrixan, familixiakin.

- Lanian pasau jatzun bixikerixa bat? Behin etorri jatan andra bat

bere gizonakin haserretu zala kontatzen, eta zer egin bihar zeban galdetzen

zoztan.

- Elgetako ze lekukin zagoz maiteminduta? Intxortakin.

- Definitu honek berbok:

Gorrotua: Ikusi eziña; Gaztarua: Bizitzako sasoi onena; Bakardadia: Gutxien gustauko jata-na.

- Noiz eta nun pasau ziñuan azkenengo erromerixia? Uztaillan 24 eta 25ian Zabaletako jaixetan.

- Alkate izan ezkeru zer egingo ziñuke? Ez nitzake izango.

- Itxuria asko zaintzen dozu? Ez.

- Musika talde bat? Bakarlarixa, Benito Lertxundi; Taldian, Gozategi.

- Liburu bat? Liburu gutxi irakurtzen dot, egunkarixa irakurtzen dot gehixen.

- Zeozer eskatu dotsazu Olentze-roi? Bizarra kendu eta ulia mozten daben makiña.

- Zure lanerako zein da bitaminaik onena? Pazientzia eta aguantia.

- Zeñekin afalduko ziñuke gustora? Beti afaltzen doten jentiakin, nere andria eta seme bixekin.

- Andrak takoiakin ala barik? Elegantia, takoiakin.

- Zeñi egingo zontzake holako entrebista bat? Portugesai.



Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

**Goio Sarasua**  
Igeltzeritza lanak

Teilatuak                      Sukaldeak  
Etxaurreak                      Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

# Zer pasatzen da arrota pareko bide-etenarekin?

Jakin badakigu Arrota parean dagoen zulogunea gero eta handiagoa dela. Aspaldian bidean sortu zen etena areagotu egin da, hau da, bidearen zati bat arrotu egin da eta beste zatia hondoratu. Bai haruzkoan eta baita honuzkoan ere kotxeak igartzen du handik pasatu beharra.

Baliteke benetan zulogunea den tamainakoa ez ikustea, baina bertatik igaroz gero, bizkor bada behintzat, arriskutsua izan daiteke.


Zuloguneaz herritarrek duten iritziaz galdetu diegu egunero-egunero etenaren eragina jasaten dutenei.

## Auzokoak diote:

**ARROTAZPIko** Anak zera esan digu: Hasteko, Udaletxera jo dugu eta honela Diputaziora bideratu da kexa. Guk argazkiak ere bidali ditugu. Diputaziokoa etorri da eta hau ubideak gaizki egina daudelako izan dela eta goiko baserrikoak konpondu beharko lukela aipatu zuen.

Hau guztiau egin ondoren trafiko seinaleak jarri dituzte bakarrik. Gainera, azken urte honetan txarrera egin du.

Orainartean, hiru kotxe istripu izan dira eta bestea motor batena. Horietako batzuk, baserritik bartatik deitu dute istripuaren berri emateko.



**ARROTAko** Julik zera esan digu: Hau lurra mugitu eta ondoren sortutako etena da. Denborarekin kamioiak eta pasatuz zabaltzen joan da. Honen azpitik ez da ezer pasatzen, baina albotik ubideak pasatzen dira; ez dute zerikusirik etenarekin. Aintzinan ere, bidean baina Zabaleta alderunta ere horrelako zerbait gertatu zen.

Orain seinaleak bakarrik ipini dituzte eta honekin ez dute ezer konpontzen, etena gero eta haundiago egiten ari da.

## Lanera egunero doazenak diotena:

**Luis Zabaleta:** Ni egunero joaten naiz lanera eta gero eta txarrago dago zulogunea. Kotxearen gurpiledako oso kaltegarria da. Nire ustez okerragoa da Zabaletatik honuzkoan, autoak mugimendu zazkarragoak egiten ditu eta koskak gora-behera handiagoa dauka. Orainarte seinaleak ipini dituzte bakarrik baina ez dut uste nahikoa denik. Ez zait istripurik parean suertatu.

**M<sup>a</sup> Karmen:** Egunero joanez, mekanikamente beste bide zatira pasatzen naiz ahal dudanean behintzat. Oso leku txarrean dago koska, errebuelta erdi-erdian dago eta zelaira joateko moduan gainera. Ia ez naiz konturatu ere egin eta ez dute uste ezertarako balio dutenik. Askotan pentsatu dut ez dudala ondo egiten beste aldera pasatzen baina ez dut bidezkoa ikusten eten hori horrenbeste denboran hori hor egotea.



**Alazne Azkarate:** Nik egunero egiten ditut joan etorriak Arrasateruntz eta oso gaizki dago eta txarragoa bihurtzen da abiadura lasterrean bazatoz. Nere ustez Arrotatik haruntz okerrago dago kotxez pasatzeko. Gainera, zulogunea gero eta sakonagoa dago, txarrago. Momentuz trafiko seinaleak ipini dituzte bakarrik, obretako seinaliak, eta hauek oso gertu daude zulogunetik. Erreakzionatzeko astirik ere ez du ematen. Ez zait istripurik parean suertatu baina bai zerrautsa lurrean zabalduta ikustea.

**Iban Retolatza:** Egunero ibitzen naiz eta txarto dagoela uste dut. Orainarte abiadura murrizteko bi seinale eta koska datarren abisua bakarrik ipini dute. Ez zait istripurik parean tokatu baina gune hori oso eskas dago. Ez dut uste seinaleak bakarrik ipinita konpontzen denik.

# GABONIETARRAKO



...eta kitto! (Eibar), Goibekokale (Elgeta),  
Drogeteniturri (Ermua) eta Pil pilean  
(Soraluze) aldizkariok kaleratutako gehigarria.

11.000 ale kaleratuko dira,  
35.000 irakurle ingururendako.

## erosketa

Publizista: Mertxe Agirre  
Telefonoa eta Faxe: 943 20 67 76

## GIDA

### MILAR LARRAMENDI

Estaziño 6  
943 20 30 11  
EIBAR



- Telebistak
- Bideoak
- Musika ekipoak
- Elektragailuak



### JOSU

943 75 12 77  
SORALUZE  
943 74 40 48  
ELGOIBAR

- Urrezko eta zilarrezko bitxiak
- Erlojuak
- Guk geuk egindako bitxiak

### PHINEAS LIDE

T. Etxebarria 10 behea  
943 20 21 71  
EIBAR

- Kamisetak
- Sudaderak
- Forro polarrak
- Txandalak
- Terziopeloko alkandorak



### LIDE

T. Etxebarria 10  
943 20 21 71  
EIBAR

- Moda eta osagaietan denetarik opariak egiteko




### KAREAGA

### KAREAGA

Bidebarrieta 10  
943 20 80 45  
EIBAR

- Erlojuak
- Belarritakoak
- Eraztunak
- Gargantilak
- Lepokoak



### VALENCIAGA

Zuloagatarren 1  
943 20 22 33  
EIBAR


- Emakume ta gizon moda
- Lentzeria eta osagaiak



# AGUIRRE

Estaziño 10  
943 20 22 11  
EIBAR

- Diseinu eksklusiboak
- CENTOVENTUNO markaren banatzaile bakarra



# IZADI

San Juan 1  
943 20 33 29  
EIBAR

- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak



# GARMA'S

Errebal 20  
943 12 71 76  
EIBAR

- Sport-wear arropak (O'Neill, Homeboy, Cottonfield, Jackpot, Kongobongo)



# PITXIAK

Zuloagatarren 9  
943 20 17 40  
EIBAR


- Erlojuak
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak



# EGURROLA

Marques de Valdespina 8  
943 17 04 64  
ERMUA

- Erlojutegia
- Bitxitegia
- ETERNA erlojuaren agente ofiziala



# YRAOLAGOITIA

Bidebarrieta 20 / 943 20 16 17  
EIBAR

- Jaiotzak
- Jokoak
- Liburuak
- Eskolarako materiala



# ETXAIDE

Arragueta 10 / 943 70 04 85  
EIBAR


- Egurrezko jostailuak
- Zumezko kutxak eta otarrak
- Markoak
- Ispiluak
- Siloiak
- Bionboak



# ISASI INFORMATIKA

Isasi 19 behea  
943 70 07 66  
EIBAR

- Ordenagailuak
- Bideo jokoak
- Kontsolak
- Joystickak



# MAMUR

Errebal 19  
943 20 73 23  
EIBAR

- Hemengo eta nazioarteko artisautza
- Zilarra
- Bohemiako kristala
- Arropak
- Iratxo eta sorginak



# CAPI

Bidebarrieta 5 / 943 20 15 47  
EIBAR


- Perfumeria
- Kosmetika
- Bisuteria
- Bestelako osagaiak



# IMPETUS

# ASTIGARRAGA

San Agustin 2  
943 20 15 29  
EIBAR



- Kamisetak
- Kamisoiak
- Pijamak
- Galtzak
- Izara bordatuak
- Laboreak
- Labore kutxak

# DIRDAI

J. Etxebarria 18  
943 20 64 07  
EIBAR



- Urrea, platinoa eta diamanteak
- Diseinu berriak

*dirdai*

# PASARRATOS

Ego-Gain z/g  
943 20 71 29  
EIBAR

- Untzien maketak
- Panpin etxeak
- Denetariko maketak
- Puzzleak
- Kometak
- Irratiz kontrolatutako auto eta hegazkinak



# MIXPIL

Bidebarrieta 18  
943 20 23 35  
EIBAR

- Gizon eta emakumeendako lentzeria eta kortseteria



# MARRODAN

T. Etxebarria 24  
943 20 73 04  
EIBAR



- Lehen mailako urrea
- Lepokoak
- Pultserak
- Eraztunak
- Belarritakoak
- Erlojuak
- Zilarra



- Opariak
- Bisuteria
- Zilarra
- Osagarriak

# DRIADA

Errebal 3 / 943 20 68 65  
EIBAR

# ARTARRAI

Goenkalea 5 / 943 17 44 19  
ERMUA



- Opariak
- Dekorazio osagarriak
- Argiak



# LAUMAR

Bidebarrieta 1  
943 20 16 26  
EIBAR

- Landareak
- Lora sortak
- Zentru naturalak eta artifizialak

# ANSA

Untzaga 8  
943 20 76 21  
EIBAR

- Bitxiak
- Erlojuak
- Zilarra
- Konponketak



# ZAGORA

Bidebarrieta 1  
943 12 09 19  
EIBAR

- Azken nobedadeak
- Nobelak
- Ipuinak
- Haurrentzako bideoak
- Gai ugari



- Alkondarak
- Jertseak
- Jakak (Levis, Lee Cooper, New Caro, Bomber)

# ARIZONA JEANS

Isasi 35 / 943 20 78 16  
EIBAR -ERMUAN, San Pelayon-



# YVES ROCHER

Bidebarrieta 3  
943 20 76 23  
EIBAR

- Koloniak eta lurrinak
- Makilajea
- Oparitzeko otartxoak zure gustura prestatzeko aukera

# SALABERRIA

Errebal 22  
943 20 20 79  
EIBAR

- Erlojuak
- Pultserak
- Eraztunak
- Belarritakoak
- Kolganteak
- Medailak
- Kateak



# BLANCA

Isasi 16  
943 20 88 47  
EIBAR


- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak



# El Salvador oroimenean

Jose Luis Aperribai abadeak hiru urte pasatxo daramatza gure artean. Duela 53 urte Bergaran jaio arren, 1976an apaiztu ondoren, Lezon ekin zion apaiz izateari. Jose Luis oso pozik aurkitzen da gure artean. Bere balorazioa positiboa da oso: "Aldaketa haundixa somatu dut Lezo eta Errenterian izan nintzenetik. Problematika oso ezberdina dago. Errenteria herri industrialia da, arazo sozio-ekonomiko haundiekin. Elgetan ez dago arazo ekonomiko haundiegirik, zentzu honetan nahiko orekatua dago. Egoera hau oso garrantzitsua da". Goibekokalek, Elgetako esperientziez baino El Salvadorren izan zituenez hitz egin nahi izan du Jose Luisekin. Oraintsu, irailaren 16an hain zuzen, bete dira Ertameriketako herrialde honetan sei jesuita eraili zituztela eta datu hau aprobetxatuz berak El Salvadorren izandako bizipenak kontatu dizkigu.

El Salvador Ertameriketa-



*Jose Luisek ez omen du sekula ahaztuko El Salvadorren bizitako esperientzia.*

ko herrialderik txikiena da. Bere zabalera 17 km. eta 120 km. bitartekoa da. Luzeran berriz 260 kilometro ditu. Iparraldean eta Ekialdean Hondurasekin egiten du muga, Hegoaldean Pazifikoko Ozeanoarekin eta Guatemalarekin Mendebalde eta Ipar-ekialdean. Biztanleriari dagokionez bost milioi inguruan dabil.

Herrialde honetan, Ertamerikako beste hainbat herrialderen antzera, arazo sozio-ekonomikoak ugari dira. Herrialde txiroak dira oso eta boterea gutxi batzuren esku dago. Inork gustoko ez duen egoera horretan aurkitzen den lurraldera abiatu zen herriko apaiza. "Duela bost urte pasatxo joan ginen. Beste lagun batek eta biok herrialde hartara joateko egokiera izan genuen, oporraldia bertan emateko. Hara orduko, jesuitek hiriburuan daukaten Unibertsitate Katolikotik gertu kokatu ginen. Hain zuzen, orain dela hamar urte bertan erail zituzten sei jesuita eta hango

## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA

sukaldari ama-alabak”.

### Gerraren ondorioak

Jose Luis eta bere laguna joan zirenerako gerra amaituta zegoen. Hamai-ka urteko guda izan zen 1980tik 19991ra. Gerra osteko giroa bizi izan zuten, beraz. “1992an Gobernuak eta gerrilak” (Askapenerako Fronte Farabundo Martí) bake-akordioak izenpetu zituzten, hala nola, ejerzitua garbitzea, polizia berria hedatzea, nekazari- lurrak eskaintzea eta Egiaren Batzorde izenekoaren gomendioak betetzea. Batzorde honen egitekoa gerra garaian gerta-

tutako terrorezko hilketa izugarriak ezagutaraztea, epaitzea eta nazioa adiskidetzeari zuzendutako zeregina oztokatzen jardun ziren gobernuak, epaigizonak eta ejerzitua. Ondoren, autoamnistia baten legea indarrean ezarri zuten”.

Hilabete inguru egon zen Jose Luis El Salvadorren. lehenengo bi aste inguru hiriburu inguruan pasatu zituzten,

## “Oso baldintza gogor eta neketsuetan bizi dira. Batean uholdeak, bestean idortek eta hurrengoan izurriteak haien eskulanaren fruituak zapuzten dituzte”

“Chacra” izeneko txabolategietako jendearen bizigiroan murgilduta. “Kristau komunitateak egiten zuten lanaz jabetu ginen: haur-eskolak, emakumeentzako lantegitxo batzuk, helduak alfabetatzeko saioak, kale erdian ospaturiko meza haiek jendearen zuzeneko partaidetzarekin. Ilunabar aldera ordea, auzune haiek oso arriskutsuak bihurtzen ziren”. Ondoren hiriburu- tik urrun zeuden nekazal komunitate edo komuna-kooperatiba bitara bidali zituzten. “Lempa ibai inguruan zeuden komu- nitate haiek. Ibai horren ubidean makina bat herri- tar hil zuten zoritxarreko “heriotz eskudroi” izu- eragileak”.

### Egoera latza

Oso egoera txarrean bizi ziren leku artako biztan- leak. Gobernuaren lagun-



Frente Martí de liberación Nacional taldeko bandera eta ikurrina.

tza ezari naturaren esker txarra gehitu behar zaio. “Herri-lur komunal haie- tan, garai batean kotoi- lur izanak, gerrilari-ohiak ahalegintzen ziren gehienbat etorkizunari aurre egiten. Oso baldin- tza gogor eta neke-tsue- tan bizi ziren. Batean uholdeak, bestean idorte- ak eta hurrengoan izurri- teak haien eskulanaren fruituak zapuztuak uzten zizkieten. Gu han egon ginen garaian esaterako, nahiz eta eurite-sasoia izan, ez zuen tantarik ere egin. Etxebizitzak gehia- go zuten oilategi itxura.




1980tik 1991ra arte iraun zuen gerrak El Salvadorren. Benetako egoera larriak jasan behar izan dituzte.

**HAIZEA**  
**TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA**  
**ETA BEROGAILUAK**  
Artekale 3.  
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE**  
**ETA BAINUGELETAN**




Ez geneukan, inondik ere, komun-zulo triste bat ere". Jateko eta edateko ere ez zegoen aukera handirik Jose Luisek diozkunez, "Bero-galdatan, pu-tzuko ur kirastua edanez, frigo-leak edo babarrun-txoak janez batik bat zelan edo halan moldatu ginen".

Hala ere, egoera latz horretatik irtezeko saiakerak egiten dihardute, nahiz eta era guztietako zailtasunak izan. "Komuna eta kooperatiba egitura eman nahirik zebiltzan hango komunitate bizi-tzari eta ekonomikoari, baina ur eta infra-estruktura eskasiak batetik, eta interes ekonomiko-politiko alderdikoiek bestetik, nahiko banaduak mantentzen zituzten euren indarrak. Gogoan hartu, gainera gerrak erabat hautsita eta zartatuta utzi zituela familia guztiak". Apaiz bergaratar honi oso

barnean geratu zaio El Salvadorera eginiko bidaia: "Badut zerbait oso barneratua bisitaldi hartatik. Kemen handiko jendeada, abegi eta ostatu ezinobea eskaintzen zizuna eta oso itxaropentsua. Nahiz eta baztertuak sentitzen ziren bai gidari politiko izandakoen aldetik eta baita El Salvadorreko ia Eliza osoaren aldetik. Hala ere, tinco irauten zuten itxaropenari eutsiz".

Amaitzeko, urtemuga honetan, Jose Luisek ez du hainbeste erakutsi zioten jendea ahaztu nahi izan, "El Salvador herri hari nire oroimena, esker ona eta elkartasuna eskaini nahi dizkiot munduaren alde honetatik, izan ere alde hartatik bizitza, mundua eta gizatasuna bere egian eta gordinean ikusten lagundu baitzidaten".



*El Salvador, Ertamerikako beste herrialde batzuk moduan, egoera sozio-ekonomiko latzean aurkitzen da.*

***"Baztertuak sentitzen dira bai gidari politiko izandakoen aldetik eta baita El Salvadorreko ia Eliza osoaren aldetik"***

**EKAIN Inmobiliaria.**  
**ZARAUTZ**

**San Ignacio 1, behea**  
**Tel. 943 89 40 84**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ZARAUTZ	Itxasmendi kalea	3 logela, trasteroarekin eta altzariekin	Galdetu
ZARAUTZ	Etxebeste kalea	4 logela, 2 komun eta garajea	Galdetu
ZARAUTZ	Orape kalea	3 logela, 2 komun. Etxe berria	Galdetu
ITZIAR		Hondartzara begira eta garajedun 4 duplex	Galdetu
ITZIAR		2 logela, garajea, itsasora begira	Galdetu
ITZIAR		3 logela, garajea, itsasora begira	Galdetu
GETARIA		2 logelako etxeak eraikiko dira	Galdetu
GETARIA		3 logelako etxeak eraikiko dira	Galdetu

# Gabonetan, kirol ekintzak herriko haur eta gazteenadako

Hurrek, bi kirol ekintza izango dituzte aurtengo gabonetan

Urtero bezala, Elgetako Udalak, gurasoen elkarteak, eta Oskarbi pilota elkarteak, beste herritar batzuk lagunduta, gabonetako kirol jarduerak antolatu ditu. Aukera zabala izango dute herriko gazteek gainean ditugun gabon-oporretan beste zenbait ekintzen artean. Adin guztietako hurrek izango dute parte hartzeko aukera. Gainera, denentzako izango dira sariak eta opariak. Iaz, giro jatorra ikusteko aukera izan genuen Elgetako frontoian izan genuen pilota jaialdian.

Hantxe izan ziren lehian herriko pilotari gazteak beraien artean. Aurtengo ekitaldi honek emango dio hasiera gabon ekintzei. Abenduaren 28tik 31ra bitartean jokatu da. Jadanik izena emana duten pilotariak aurki jarungo dute pilotan.

Bestalde, urtarri-



Iaz, pilota txapelketan parte hartu zuten gazteak sari banaketa eta gero egindako erretratuan.

laren 3an hainbat herrikirol etan jarduteko aukera izango dute. Ekintza hau, arratsaldeko 15:30etatik 17:30etara

izango da. Aipaturiko ekintza honetan, urtarriaren 4ko eta 5eko egunetan bezala sarrera ordaindu beharko da.

## Ubera II.a Madagaskarreko munduko 22 urtez azpiko pilota txapelketako aurreselekzioan

Mexikora joango da urtarrilean beste pilotari batzuekin batera

Xabier Ubera, Madagaskarren 2000. urteko irailetik urrira bitartean jokatu den 22 urtez azpiko munduko pilota txapelketarako aurreselekzioan sartu dute. Bera bezala beste zenbait pilotari izango dira, besteak beste, Etxaniz Azkoitiarra, Bengoetxea,.... Aurreselek-

zio horretatik gero, lau bakarrik izango dute aukera Madagaskarreko munduko txapelketara joateko. Bitartean, partidak jokatu beharko dituzte beraien maila erakutsi asmoz. Hau dela eta urtarriaren 20tik 30era bitartean Mexikora joango da zenbait partida jokatzera.

**Arantzeta eta Oskarbi finalderdi ezberdinetan** Leiza bizkaitarra izango du Eñautek, gabonetan Zaldibarren jokatzeko lauterdikko txapelketan arerio. Partida hau irabazita finala jokatzeko aukera izango du abenduaren 31an. Gogoratu Leizak Elgetako txapelke-

ta irabazi duela aurtengo Bestalde, Oskarbi, Gipuzkoako klubarteko txapelketako finalerdietara iritsi da. Azken partidua Ubera I eta Peñalverrek jokatu zuten Arrasateko frontoi berrian. 22-13 galduta zuten baina jadanik sailkatuak zeuden finalerdietarako.

**IRAMA**  
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
tel. mugikorra: 619692336  
tel: 789057-768025

**ANA LIBURUDENDA**

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel 1768078

# Kiko Arregi medikua izan genuen E.H.M.F.ren 75 urteurreneko amaiera ekitaldian

Bertakoa baino kanpoko jende gehiago bildu zen gimnasioko giro hotzean

Badira jadanik zortzi hilabete Euskal Herriko Mendi Federazioak (E.H.M.F.) 75 urte bete zitueneko maiatzaren 23 hura ospatu genuela Elgetarrok. Zortzi hilabete, bost makilak herriko enparantzan batu zirenetik. Bitartean, eta federazioak 100 urte bete arte behin-tzat, makila hauek izango dira honen testigu. Gaur egun arte antolatu ziren ekin-tza guztiei, abenduaren 10ean Elgetako gimnasioan egin zen ekitaldi batek eman zion amaiera. Ekitaldiari hasiera Pako Iriondo Lehendakariak eman zion urteurren honetan parte hartu eta lagundu zuten guztiei eskerrak emanez. Jarraian, Zaragozako ospitalean lan egiten duen Kiko Arregi sendagileari eman zion hitza.

Kiko Arregi, mendizaleen gorputzatalerako izozketen gainean, estatuan eta agian mundu mailan adituenetakoa den medikua dugu. Bide batez, esan, Zaragozako ospitalean dagoela izozketetan prestatuena dagoen zentrua. Berak eman



*Ezkerretik eskumara, kiko Arregi, Iriondo eta Joseba Egibar*

zuen hitzaldia, ildo horretatik joan zen. Iozketa bat zergatik eta nola galarazi zitekeen azaldu zuen bertan egon ziren 70 bat pertsonen aurrean. Hone-taz gain izozketen gaine-

ko azken nobedadeak era ulergarri baten azaldu zuen. Hainbat mendizalere-n hainbat gorputz atal erakutsi zituen argazkitan, horietako batzuk ikusteko nahiko gogo-

rrak. Jarraian, Joseba Egibar mendizaleak amaiera ekitaldi honetarako prestatua zeukan "Euskal Herria mendiak eta lurra" ikus-entzutekoa zegoen egitarauan. Hala ere, irudi horrek zekartzan auto batek izan zuen istripua zela eta bertan behera geratu zen. Honen ordez, Canadian zehar, berak elur-zakurrekin egin zuen zeharkaldi baten berri eman zuen.

***Mundu mailako ospea duen Kiko  
Arregi izan genuen Elgetan.  
Hitzaldi interesgarrian irudi ikus-  
garriak ikusi ahal izan genituen.***

**SISTECO**

**erraminta makina**

Juan Luis Berechinaga  
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

JATETXEA  
**GURPIA**

Eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak,  
jaunartzeak, etab.

Arkitekto Kapelastegi, z/g.  
48230 Elorrio / Bizkaia Tel: 94 623 17 95

# Gabonurreko bolo-txapelketa Angel Garciak irabazi du



*Irabazleak elkarrekin sari banaketa eta gero.*

Abenduaren 18an, zapatua, amaitu zen polikiroldegiko bolatokian urteroko gabon aurreko bola-jokua. Asteburu honetan izan zen azken tiraldia eta jardunaldi guztien ostean Eibarko Angel Garcia izan zen irabazlea. Denetara 17 txirlo bota zituen. Bigarren, eta 15 txirlorekin, Berrizko Rikardo Albizuri izan zen. Hirugarrenak 14 txirlorekin, Jaime Ulazia eta Jose Irusta. Gau hortako tiraldian, Ondarruko Luis Goenaga izan zen nagusi.



*Argazkiko neskatok makina bat hiruko jo zituen*

## Futbito txapelketarako izena emateko azken egunak

Txapelketa urtero bezala urtarrilean hasiko da

Aste honetan amaituko da, Elgetako futbito txapelketarako izen emateko epea. Izen-ematea bai neska bai mutil taldeei irekia dago.

Txapelketa, urtero bezala, urtarrilean hasiko da eta bi itzulitara izango da. Behin izenemateak burutu eta gero, antolakuntza talde bakoitzeko ardura-dunarekin kontaktuan jarriko da. Ondoren, talde guztien ordezkariak bilera egingo dute gauza guztiak zehaztu asmoz.

Gogoratu iaz mutiletan irabazleak, Txapela elgetarrak izan zirela. Nesketan, berriz, Joixon Bertan.



*Aldrebesak taldea, iazko hiru taldetako bat*

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M<sup>a</sup> Jesus Arrazola

**VIVO**

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

**TAPEM, S.A.**

Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



# Kontua gauzak ze asmokin egitten diran da ez zeinek egitten dittuan

Bizitzan zoriontsu zazela esateko egin bihar dana laburtu egin leike:

Familixa onian jaio, ez estudixau, astebururo juerga egiñ (ahal bada bi bidar) eta betirako ama-aitten etxian bizi.

Derrigorra da mutillak neskia eta neskiak mutilla billatzia (politta, diruduna eta bestiek ondo hartzeko modukua), iñungo gurutzaketa arraroik egitteka. Kotxe karua erosi, ezkondu (elizatik, bestela ez dago zeruik) eta bi seme-alaba euki.

Biharrian lan ordu asko egiñ, 35 orduak bariku eta domeka artian. Etxeko eta beste lekutako lanak egingo dittue bes-

tiek, norbera estresauta bizi da eta. Mileniuia hasten dan momentua aprobetxautu, ezagutzen dozun jendiai laztanak emon. Garrantzitsua da politika kontuetan jefiak, aittak, boteriak, goraukuek esaten dabena egittia, abstenitzia.

Periodikua ez erosi (euskaldunona gutxi). Danadalakuan, irakurri be gutxi, kotilleuak, deportiak (futbola) eta telebisiñoko ordu-tegixa. Telebisiño asko ikusi, batez be A3eko telediarixua eta Maria Teresa. Kontuz! Kalkutakua ez, bestia ("La bestia y la bella"-kua).

Eta, beste bestiei, aldamenekuei, zerbaitetan dabizenei, kristonak eta bi (zeinek ete dakaz bi) egiñ.

Norberan zoriontasuna billatzeko derrigo-

rezkua azkenengua da. Zoriontsu izateko garrantzitsuena iñungo duda barik, bestiak baiño hobia, inportantiaua eta diru gehixauduna izatia da. Hau lortzeko bardin da zer egiñ, dana dago onartuta.

Baiña norberan zoriontasuna eta aberastasuna bakarrik billatzen dabena, beste danak engañautu, distraiduta eta itsututa euki bihar dittu. Begixak zabalik euki ezkeru, jakingo dogu eta, bestioi, norberan zorigaitzak in zoriontsu dala. Arazia da badakigunian bateronbat gure desgraziakin zoriontsu dala eta ez doguenian ezer egitten hori konponitzeko.


Kontua da, batzun asmua helburuak dittuen ekintzak egittia dala, ekintza alternatibo

batzuk egittia, itsua eta mozkorra hartzia baiño helburu inportantiauk dakezen ekintzak.

Beste batzun jarduna, ostera, zuen kontura ekintzak egittia da eta ez zuentzako ekintzak egittia. Garrantzizkua ez da Sagardo Eguna antolatzia, Sardiñak erretzia, Gaztaiñak gertatzia, norberan Patxarana norberai erregalatzia, egun bardinian herrixan bost kontzertu egotia ala hitzaldixak antolatzia.

Ardura dabana, egitten diranak zer helburukin egitten diran konturatzia da. Pentsau eta gero bakoitza bere ideekin eta pentsatzen dabena kin konsekuente izateko.

**Oxel Erostarbe Tubilla**



**KONTXI  
ARRANDEGIA**

Salbador 5 Tel: 768009

**Aperribay, s.l.**  
*Marmoldegi eta granitoak*  
Pagatza indus. z/g. 20690 ELGETA  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

**Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire  
girotua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

zapatutan eta domeketan bertako  
babak eta saiheskia erreta.


**TABERNA**  
PANA DEROKUA  
DATE XEAL

tel: 768273

7  
L  
E  
A  
P  
A  
7  
N  
D  
E  
G  
7  
A

**M<sup>a</sup>  
ESTHER**

Tel: 76 81 67



## Zurittu eziñak

Beruan eta berotan idazten dot, normalian hoztarian hobe da, baiña gaur ez da giro. Hori dala eta, oinguan be aldizkari honetako jabiak ez dabe bere gain hartuko adierazitakoaren erantzukizunik.

Berriz be edurra egin dau, eta edurra egitten daben bakoitzian hiru arazo izaten dittut beti: ertzainak, irratiko partiak, eta kitaniebesak. Orain dala 2.000 urte inguruko eslogan baten antzera: hiru arazo, baina, era berian, arazo bakarra.

Ertzainekin arazua galdera batekin azaltzen da. Zergaittik Urkiola ixten daberen ez dira jartzen Legutianoko

(Villarrealako) zubixan jendiai Urkiola itxitta dagoela esan, eta kotxiak Barazartik bialtzeko? Horren orde bi aldiz buelta emotia tokau jata: batian Urkiola ondoko (500 m) atsedan lekuan, eta bestea Otxandixon. Beste behin Durango aldetik aldapa erdixan. Neuri pasautakuak aittatu dittut, baina susmoa daukat leku askotan antzerako gauzak gertauro dirala. *No comment.*

Irratixetan be bidien berri emoten egun osuan, zerbitzu publikoa dala behin eta berriz esanda gainera. Ez dakitt zenbat bidar asmauko daben, baiña norberak ikusitta edo pasautako lekuetan askotan ez behintzat. Esate baterako, abenduan 16xan arratsaldeko seiretarako partian Urkiola itxitta. Hori esaten ari zirela ni Urkiola

pasauta Txakurzulora bidian. Ezelako problemarik ez Urkiola gainian. Ertzainak be bertan kamiña zapaltzen izotzik dagan ikusteko. Eta holakuak zenbat bidar? Horrek norberak dakixenak. Gero nola egingo dotsagu ba kaso mendate bat edo beste itxitta edo kataiekin dagoela esaten daberenian.

Azkenik, kitaniebesak, horrek bai traste aldrebesak. Zuek be askotan ikusiko ziñuezen kitaniebesak etortzen eta lan erdi egindda buelta hartzen. Mugaraiño edo San Romaneraino garbittu eta gero buelta, hortik aurrera bizkaitarrak garbitzia dake. Abenduan 15ian Enterprise-tik urten eta etxera nentorrela kitaniebesan atzetik tokau jatan etortzia Legutianotik Otxandixoraino. Ez zeban asko garbitzen, baiña,

tira. Otxandixora ailegau eta lehen esandako ertzainen argixak ikusten zien. Kitaniebesak buelta hartu eta ertzainek aurrera joaten laga ez. Arabatik etorri kitaniebesoi, eta Bizkaira pasau zanian buelta Urkiolako bidia garbittu barik.

Enfiñ, beruan hasi eta azkenerako sutan. Probintzien arteko gauzak ikusten dirazarian holaxe jartzen naiz bai. berba egingo doskue Abiadura Handiko Trena, autopistak, eta ez dakitt zer biharrezkuak dirala ekonomia altxatzeko, komunikazio saria ezinbestekua dala fabriken tzako, administraziñuak herritarrentzako egin bihar dabela lan, eraikuntza nazionala, europeok gazela,... Eta 2000. urte bezperan, independentzia pendiente daukagun honetan, oinddiokan kitaniebesak buelta har-tzen dabe mugan.

Datorren urtian be gure parian edurra sendo egingo dabelakuan, inuxente egun eta urte berri on.

Enrike Gorrotxategi

***Kitaniebesak, horrek bai traste aldrebesak.  
Mugaraiño edo San Romaneraino garbittu eta gero  
buelta, hortik aurrera bizkaitarrak garbitzia dake.***

**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**  
**DEKOLETATA ETA**  
**ELIJAZIO SISTEMAK**  
Berraondokua Zg 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

**IBAIBA-**  
**RRIAGA**  
GARRAIOAK  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

**E**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**  
San Roke 6  
tel: 768168.



Erretratuak: Itziar Olabe

## Eskolako erretratuak

Eskolako erretratuak izaten dira behin eta berriz hona aldizkarira bialtzen dozenak. Izan be, sasoi baten ez zeban edozeiñek erretratu makiñaik euko eta hori arrazoi indartsua izan leike eskolako erretratuok agertzeko.

Aurreko aletan etara dogun moduan, espaloiko eskillaretan etaratako erretratuak da, oiñ ez daren eskillaretan. 1967 urte ingurukua da erretratuak. Bi andereiñok lagundutako umien izenak honetxek dira:

Lehenengo ilaran: **Arantxa Alberdi, Ana Mari Gallastegi, Laura Arantzabal, Mari Lourdes Etxebarria, Ana Jesus Arantzabal, Milagros Augusto, Elisabeth Alberdi, Amaia Ibaibarriaga, Mari Jose Erostarbe, Mari Lourdes Olabarria, Izaskun Izagirre, Mari Jose Etxebarria, Elisabeth Arantzabal, Itziar Olabe eta Izaskun Olabe.**

Bigarren ilaran: **Andereño Pakita, Mari Asun Urien, Mari Jesus Olañeta, Rosa Mari Untzetabarranetxea eta Teresa Elortza.**

Hirugarren ilaran: **Juan Mari Arantzabal, Itziar Idigoras, Ines Arantzeta, Mari Asun Zenitagoia, Maribel Arantzeta, Mari Angeles Askasibar, Mari Asun Gorosabel, Eugeni Oianguren, Mari Jesus Irazabal, Maribel Retolatza, Mari Asun Oianguren, Ana Mari Larreategi, Jesusa Izagirre eta andereño Lupe.**

Azkenengo ilaran: **Pili Osa, Mari Jesus Markiegi, Jesusa Astola, Mari Jose Oianguren, Belen Royo, Mari Koro Retolatza, Mari Tere Olabarria, Mari Eugenia Irazabal, Karmen Arantzabal eta Txaro Arregi.**

AENOR

ER

Empresa  
Registrada

ER-714/296

# Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatuak.



Salvador, 32. Tel eta Faxes: 76 82 61

**Goibeko**  
k.e.  
Tel.: 943.78.90.85  
Salbador 2 Kultur Etxea  
goibeko@topagunea.com

Mendi mendia elkartiak 25 bazkide  
Jntxorta elkartiak 83 bazkide  
Ozkarbi elkartiak 308 bazkide  
eta Goibeko Kultura Elkartiak?

## Egin zaittez bazkide


Herritar guztion artian proiektu haundixak eruingo ditudugu aurrera

GOJBKOK Goibekokale aldizkarixa eterratzen jarraituko dau eta zu izango zara hori egitten lagunduko dabena

Goibeko Goiena proiektuko partaide da eta komunikazio zerbitzu berriak ekarriko doskuz Elgetara urte hasieran



Guk baietza emon dotsagu, eta zuk?



Bazkide izateko gerturatu kaliau jarriko ditudugu  
mahaixeta

